

## BBK-Kutxabank-ek egokitutako ibilgailu bat eman dio San Francisco de Borja Fundazioari

- **Ibilgailuak San Rafael Egoitzako erabiltzaileen garraioa erraztuko du**
- **Egoitza honetan, barnetegi moduan zein eguneko zentru moduan, laguntza osoa behar duten ehun persona artatzen dira.**

**Bilbo, 2013ko uztailaren 16a.-** BBK Gizarte Ekintzak, Alakanteko San Rafael Egoitzari mugikortasun murrizta dutenentzat egokitutako ibilgailu bat eman dio, ibilgailu hau egoitzan bizi direnentzat baliatuko da.

Patricio Montoya, Alakante eta Murtziako zonako Kutxabank-BBK-ko zuzendariak, eman dio ibilgailua Ana Carratalá, San Francisco de Borja Fundazioko zuzendariari. 32.000 eurotan balioetsia dagoen furgoneta, ezgaitasun intelektuala dutenen lekualdaketak egiteko erabiliko da, modu honetan hauen autonomia, gizarte integrazioa eta bizi kalitatea hobetuz.

San Francisco de Borja Fundazioak, gizarte-familia egoeratik edo norbanakoaren ezaugarri bereziengatik zaintza espezializatua behar dutenetaz arduratzen da. San Rafael Egoitza, Fundazioak kudeatzen duen zerbitzu espezializatu garrantzitsuena da. Egoitza 1995an inauguratu zen eta 60 lagunentzat edukiera duen bizilekua eta 40 lagun artatzen dituen Eguneko Zentroa ditu. Egoitzako arreta eredua, bertan artatzen dituzten pertsonen bizi kalitatean oinarritzen da, hemen bizi diren ezgaitasun intelektuala duten pertsonak bait dira Fundazioaren oinarria eta ardatza.

Kutxabank taldeko Aurrezki Kutxetako Gizarte Ekintzek 671.000 euro bideratu dituzte Valentziako Erkidegoko 17 gizarte proiektuetara. Laguntza hauek, finantza taldeak valentziar erkidegoarekin duen konpremezu tinkoa erakusten dute, talde honek 2009-tik gaurdaino 3 milioi euro baino gehiagoko gizarte inbertsioa egin du.

Kudeaketaren doitasunarekin batera, BBK, Kutxa eta Vital barneratzen dituen Kutxabank Taldeak, bere DNA-n du gizarte bokazio historiko argi eta garbia. 2013an hiru Gizarte Ekintzek batera, modu absolutuan estatu mailako aurrekonturik altuenetakoa eta entitatearen tamainaren erlazioarekiko hornikuntzarik handiena aurkeztu dute.